

Go!azen Belodromora Celeste eta Marco ikustera



Carmen Machi bere islarekin aurrez aurre, *Celeste* telesailen.

SERGIO BASURKO

Belodromoak *Celeste* telesailaren eta *Go!azen*en hamaikagarren denboraldiaren lehen atalaren estreinaldiak hartuko ditu, baita *Marco* –Perlak sailari lehiak kanpo amaiera emango dion film luzea– eta *Sail Ofiziala* itxiko duen *We Live in Time* ere.

Diego San José irundarra da *Celeste* telesailaren sortzailea; sei kapituluko, Elena Trapék zuzendu du eta osorik emango da Belodromoan


etzi, irailak 22, arratsaldeko seiretan. *Celeste* musika latinoamerikarreko izar nagusia da, bere abestiak ezin arrakastatsuagoak dira mundu osoan eta kontzertu estadio-betetzaileak ematen ditu. Baina telesail hau ez da Celesteri buruzkoa. *Celesteren* benetako protagonista Sara Santano da, bizitza osoa zergak biltzen eman duen Ogasuneko ikuskatzaile bat. Hogeita hamar urtetik gora Zerga Agentzian lanean eman ondoren erretiroa hartzeaz dagoela, bere bi-

zitzako enkargurik garrantzitsuena jasoko du: Celestek zergak Espainian ordaindu behar dituela frogatzea.

Bestalde, irailaren 27an, *Go!azen* telesailaren hamaikagarren denboraldiko lehen atala aurkeztuko da Belodromoan 18:30ean eta, iaz bezala, emanaldiaren aurretik protagonisten zuzeneko emanaldi batez gozatu ahalko dute ikus-entzuleek. Itziar Gomez errenteriarrek zuzendu du Basakabi udalekuan kokatutako abentura musikalen emanaldi berri hau. Ohiko interpreteak agertuko dira bertan, aktore berriez gain, hala nola Sara Cozar.

Halaber, ohi denez, Zinemaldiaren azken egunean, Belodromoan amaierako galaren zuzeneko emanaldia egingo da. Gala horren aurretik, 18:45ean, Perlak sailari lehiak kanpo amaiera emango dion filma emango da, *Marco*, Veneziako Mostrako Orizzonti sailean programatua. Jon Garañok eta Aitor Arregik zuzendutako film berriak Eduard Fernández du protagonista eta Enric Marcoren benetako istorioa kontatzen digu: bere biografia faltu eta Flossenbürgeko kontzentrazio-esparrutik bizirik atera zelako itxurak egin zituen.

Bizitza estralurtarra



Alan giza antenako irudi bat.

S.B.

Zinemaldiak, Donostia International Physics Center erakundeak (DIPC) eta Euskadiko Filmategiak antolatutako jardueraren batean, zinema eta zientzia lotzen dituen film baten emanaldira joan ahalko dira 6-11 urteko milaka haur belodromoan. Oraingo honetan, Ikastetxeak Belodromoan ekimenak bizitza estralurtarra izango du ardatz, zinemarako hain klasikoa eta, aldi berean, zientzia modernorako gaur-gaurko gaia berau.

Belodromoko pantailak *Alan giza antena* filmaren emanaldia hartuko du. Amalie Næsby Fickek zuzendutako animaziozko filmak neska estralurtar baten istorioa kontatzen digu: hamaika urteko mutiko bat eta objektu hegalaria ezezagunetan espezialista den haren bizilagunarekin diharduena. Filma euskarara bikoiztuta emango da eta, halaber, aurkez-

pen original bat izango du, hainbat ezusteko betea. Saioetan zehar, belodromoan bat-bateko behatoki astronomiko inprobisatu bihurtuko da une batez, unibertsoaren esker gata-sunarekin konektatzeko eta, ikuspegi zientifiko batetik, beste planeta batzuetan bizia existitzeko probabilitateari buruz geure buruari galdetzeko.

EHUko Naiara Barrado-Izagirre astronomoa izango da edizio berri honetako zientzialari gonbidatua. Barradok hainbat urtez geroztik egiten du lan Bilboko Ingeniaritza Eskolako Planeta Zientzien Taldean, Jupiterren dinamika atmosferikoa aztertzen. Horretarako, misio espazialen datuak erabiltzen ditu, hala nola Hubble espazio teleskopioa eta Cassini, Juno eta halako zundak, bai eta Lurrean kokatutako teleskopio ugarien behaketak ere. Barrado-Izagirrek gidatu egingo gaitu emanaldien aurreko bidaia kosmiko honetan.

GIORGIO ARMANI
Si passione

EL NUEVO EAU DE PARFUM INTENSE
RECARGABLE

armani.beauty.es

ARMANI
OFFICIAL BEAUTY SPONSOR

72 | **SSIFF** Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival

SADIE SINK